

igeldo

TOKI ENTITATE TXIKIA TET



**INFORMAZIO
-BILERAK**
azaroak
15 eta 16
19:00
+ info: 10. orrialdean

Liburuxka honek hiriko Gobernuak 2023ko urriaren 10ean onartutako Toki Erakunde Txikiaren dokumentua laburbiltzen du.

Azaroaren 28ra arte egongo da jendaurrean.

Dokumentu osoa www.donostia.eus webgunean kontsulta dezakezu eta adierazitako epera arte nahi dituzun alegazioak erregistratzeko aukera duzu.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**



**HERRI
KONTSEILUA**

igeldo

ZERGATIK ETA ZERTARAKO TET

XIV. mendeaz geroztik, Igeldo mugape bereizi moduan onartua izan da –eta bere burua ere horrela ikusi izan du–, denboran zehar autonomia-maila desberdinak izan dituena, lurraldean errotutako gizarte-dinamikekin eta pertsona-multzo iraunkor batekin.

XX. mendearen amaieratik, eta mende honetan zehar, autonomia edo independentzia maila handiagoa emango zioten konfigurazio berrien saiakerak egin dira.

2019an, Udalak eta Herri Kontseiluak elkarrizketa berriak hasi zituzten, eta berriz ere mahai gainean jarri zuten Toki Entitate Txikia sortzeko aukera, herritarrengandik hurbilago egongo den funtzionamendu soziopolitiko eta administratiboaren nahia bideratzeko formula gisa, autonomia handiagoa izango duena eta Igeldoren eta Donostiaren arteko harremanak hobeto arautuko dituena.

Lan eta adostasun bilaketa prozesu luze horrek, eztabaiden eta negoziazioen ondoren, babes zabaleko formula bat ekarri du parte hartu duten gizarte-eragileen, hiriko gobernuaren eta korporazioko talde politikoaren artean: Toki Entitate Txikia (TET).

Berorrek ekar ditzakeen onurak, biderragarrtasun teknikoak, juridikoa eta ekonomikoa... aztertu dira, betiere hiriko gainerakoei kalterik ez eragiteko baldintzapean eta kalitatezko zerbitzuak ahalbidetuko dituen formula bat zainduz.



Zer hobekuntza lortu nahi dituzte igeldoarrek TETrekin?

- Bide publikoko elementuen mantentze-lanak hobetzea: espaloiak, bideak, argiteria, bide-segurtasuna...
- Inbertsioak handitzea herritarrentzako eta taldeentzako ekipamendu gehiago eta hobekuntza izateko.
- Ur-sarera sarbide unibertsala.
- Etxebizitza publikoa sustatzea.
- Hirigintza kontrolatzea eta planifikatzea.
- Arazo zehatzei erantzuteko azkartasuna, herritarren arreta hurbilduz.
- Adinekoen bizitza hobetuko duten gizarte-programak sustatzea, horietako asko etxe sakabanatuetan.
- Hondakin-bilketa landa-eremura egokitzea.
- Euskarari bultzada ematea.
- Mendizorrotz balioan jartzea.

Zer espero da Igeldo TET eratzen denean?

- Administrazioa herritarren beharretara hurbiltzea, arlo publikoaren kudeaketari buruz erabakitzeko gaitasun handiagoa izanez.
- Herritarren parte-hartzea handitzea.
- Arazoak azkarrago konpontzea.
- Herritarrek zerbitzu publiko jakin batzuetarako sarbide handiagoa izatea.
- Igeldon inbertitu beharreko baliabideak handitzea, udalaren ekarpena ziurtatuz eta udalaz gaindiko erakundeen (Aldundia, Europa...) funts publikoen diru-laguntzak eskuratuz.
- Udalaren mendekoak ez diren urte anitzeko inbertsio-planak egiteko aukera ematea, diru-sarrerak eta aurrezkiak oinarri hartuta.
- Komunitatearen kohesiorako garrantzitsuak diren zerbitzuak aktibatzea.
- Lurraldearen dinamika eta gizarte-, kultura- eta kirol-bizitza sustatzea, ekimen berriak sustatuz.
- Tokiko dinamikan oinarrizkoa izan den auzolanari oinarrizko baliabideak ematea.

ESKUMENAK

Zer kudeatuko luke Igeldok modu autonomoan?

Eskumenak eta, beraz, erantzukizunak norberaganatzea ez da lan erraza. Ez da hala Udalarentzat, ezinbestean berrantolatu behar baita bermea eskainiz eta deribatu asko kontuan hartuz (indarrean dauden araudiak, kontratuak, hitzarmenak, erakundeen arteko harremanak...). Eta ez da hala TETren erantzukizuna bere gain hartzen duenarentzat ere, arlo publikoa kudeatzeko eskakizun konplexu guztiak bete beharko baititu.

Prozesua progresiboa izango da, eta, irauten duen bitartean, erronkak honako hauek izango dira:

- Herritarrentzako zerbitzuak ez etetea
- Hartzen diren erabakien segurtasun juridikoa eta administratiboa zaintzea

Lau **eskumen** multzo bereizten dira:

A multzoa: Eskumen propioak hasieratik (informazio gehiago 4. orrialdean)

B multzoa: Intereseko eskumen-eremuak, baina transferitu aurretik eragin guztiak aztertu, sakondu eta doitzea eskatzen dutenak (informazio gehiago 5. orrialdean)

C multzoa: Zerbitzu deszentralizatuak (informazio gehiago 6. orrialdean)

D multzoa: Elementu komunak edo zeharkakoak ((informazio gehiago 6. orrialdean)

A multzoa

ESKUMEN PROPIOAK HASIERATIK

Igeldoko TET eratu bezain laster, eskumen propio batzuk eskuratzen dira, nahiz eta horiek bete-betean gauzatzeko egokitzapen-aldi bat beharko den.

Gehienez ere **urtebeteko** epean eskumen hauek guztiz eskuratu eta martxan egotea espero da.

Zer eskumeni buruz hitz egiten ari gara multzo honetan?

- Bideak eta instalazio publikoak mantentzea eta kontserbatzea: arekak garbitzea eta sastrakak kentzea, seinalezatzea, espaloiak konpontzea, luiziak kentzea, eserlekuak, jolaslekuak, barandak, iturriak, pasabideak...
- Berdeguneak kontserbatzea eta mantentzea: belarra moztea, landaredia mantentzea, zuhaitzak landatzea...
- Komun publikoak, bide publikoak eta fatxadak garbitzea: hondakinak bide publikoetan, parkeak eta lorategiak garbitzea, garbiketa, hustubideak, paperontziak hustea eta garbitzea, pintadak garbitzea...
- Gainerako eraikin publikoak garbitzea, mantentzea eta hornitzea: Itsas Aurre, Herri Eskola, Eskola Zaharra, gainerako ondare arkitektoniko eta arkeologikoa...
- Argiteria publikoaren mantentze-lanak: instalazioen prebentzioa, matxuren konponketa, elementu berrien instalazioa, energia-gastuaren kontrola.
- Adinekoen eta gazteen parte-hartzea sustatzeko eta errazteko ekintzak antolatzea.
- Jaien eta kultur jardueren programazioa: ekintzak eta ikastaroak, zinema, hitzaldiak, lehiaketak, film laburrak, tailer bereziak.
- Liburutegi/ludoteka zerbitzuak/KZ Gunea.
- Euskararen sorkuntza, erabilera eta ezagutza sustatzea.
- Kirola, aisialdia eta arautu gabeko hezkuntza jarduerak sustatzea.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea.





Multzo honetan erabilgarri dagoen aurrekontuaren arabera, honako hauek ere landu litezke:

Inbertsioak: Bide publikoak konpondu, asfaltatu eta berritzeko inbertsioak, parkeak, berdeguneak edo ingurune naturalak eraberritu edo egokitzeko inbertsioak, argiteria-instalazio berriak, halakorik ez dagoen lekuetan edo daudenak berritzeko inbertsioak (udal-errepidea fase honetatik kanpo geratzen da).

Era berean, elkarteei **diru-laguntzak** emateari ere ekin ahal izango zaio.

B multzoa

INTERESEKO ESKUMEN-EREMUAK, BAINA TRANSFERITU AURRETIK AZTERTUAK IZATEA ESKATZEN DUTENAK

B multzoaren baitan transferituko diren eskumenen zehaztapena modu mailakatuan egingo da eta eskatzen duen analisiaren konplexutasunarengatik, hurrengo **4 urteetan** burutuko da.

Zertan oinarrituko da multzo honetako eskumenak transferitu aurreko azterketa?

- Indarrean dagoen araudi aplikagarria aztertuko da.
- Indarrean dauden kontratuen gaineko eraginak.
- Konpromiso instituzionalak.
- Donostiako gainerako herritarren eskubide eta zerbitzu publikoekiko eraginak edo ondorioak.
- Igeldoko TETk kudeaketa bere gain hartzeko duen borondatea.

Transferentzia bakoitza Udalaren osoko bilkurak onartu beharko du.

Zer eskumeni buruz hitz egiten ari gara multzo honetan?

- Hirigintza: garapen-planak, hirigintza-diziplina eta abar.
- Etxebizitzaren sustapena.
- Ingurumen-zerbitzuak: proiektuak egitea, onartzea eta gauzatzea.
- Hondakinen tratamenduen bilketa eta kudeaketa.
- Ur-hornidura eta saneamendua.
- Hilerriaren kudeaketa.
- geldoko errepide orokorraren kudeaketa.

C multzoa

ZERBITZU DESZENTRALIZATUAK

Zerbitzu horiek Udalaren eskumene-koak izaten jarraituko dute, baina Igel-
don modu irisgarriagoan eskaintzeko
moduan antolatuko dira, hurbiltasun
handiagoarekin eta bertako egoerak
kontuan hartuta. Gehienez ere **urtebe-
teko** epean eskumen hauek guztiz es-
kuratu eta martxan egotea espero da.

Zer zerbitzuri buruz ari gara?

- Herritarren Arreta Zerbitzua,
Udalinfo
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak



D multzoa



ELEMENTU KOMUNAK EDO ZEHARKAKOAK

Kudeaketa publikoari lotutako elemen-
tuak dira, betebeharrak juridiko-adminis-
tratiibo guztiak betetzen direla ziurta-
tzeko baliagarriak.

¿Zer elementuri buruz ari gara?

- Egoitza elektronikoa
- Erregistroa
- Prozeduren katalogoa
- Artxiboa
- Aktak
- Administrazio elektronikoa
- Informatika-zerbitzuak

Donostiako Udaleko Udaltzaingoak eta
mugikortasuneko agenteek Igeldoko
Toki Erakunde Txikiaren lurralde-ere-
muan gauzatuko dituzte euren esku-
menak.

GOBERNANTZA

Alde batetik, deskribatutako eskumen eta zerbitzuen kudeaketa **TETren Batzordeak** egingo du.

Bestalde, hartu beharreko eskumenak eta erantzukizunak eta aplikatu beharreko egutegia eztabaidatzeko eremu bat sortu da. **Batzorde Mistoa** deitu zaio.

Nola osatuko da TETren Batzordea?

TET 2024an osatuko dela aurreikusita, hasiera batean gestora bat sortuko da, alderdi bakoitzak Igeldon lortutako ordezkariak kontuan hartuta.

Datorren legegintzaldian, udal-hauteskondeekin batera, eta aparteko hautestontzietan, Igeldoko herritarrek zuzenean aukeratuko dute auzo-alkatea, modu nominalean. Batzordea, gainera, lau kidek osatuko dute, alderdi bakoitzak izendatuta, alderdi horiek udal-hauteskundeetan Igeldori dagozkion ataletan lortutako emaitzen arabera.

Nola osatuko da Batzorde Mistoa?

Udalaren aldetik:

- Idazkari nagusia
- Herritarren parte-hartzea
- Zeharkako zerbitzuen koordinazioa

TETren aldetik:

- Gestoraren Batzordeko ordezkaria edo auzo-alkatea, edo hark haren ordezkari izendatzen duena
- Gestoraren Batzordeak edo TETk izendatutako pertsona
- TETren teknikari juridikoa

Batzorde horrek eskumen bakoitzaren elementu zehatzak landuko ditu, erabaki-proposamenak egingo dizkie kasuan kasuko gobernu-organoei, eta udaleko edo udalaz gaindiko arau, hitzarmen edo beste tresna juridiko baten erantzuna, aholkularitza, datuak, doikuntzak edo aldaketak bermatuko ditu, beharrezkoa denean. Era berean, aurreikusi gabeko inbertsioak aztertuko ditu (larrialdiak edo legezko betebeharrak).

BALIABIDE EKONOMIKOAK, ONDAREA, EGOITZA ETA PERTSONALA



Aurrekontua

- Auzo Batzarrak proposatuko du eta behin betiko finkatuko da Donostiako Udalbatzak bere aurrekontu osoa onartzen duenean, TETrena barne.
- Aurrekontuaren aurrekia TETk kudeatuko du.
- TETren aurrekontuak herritarren partaidetzarako mekanismoak izan beharko ditu bere definizioan.
- Inbertsioetarako gordetako zenbatekoa Udalaren aurrekontuko inbertsioen kapituluaren % 1 izango da.

Inbertsioen zenbatekoa zergatik izango da % 1ekoa?

Kontuan hartu dira Udalaren inbertsioen aurrekontua, Igeldon erroldatutako biztanleria Gizarte Segurantzako biztanleria osoarekiko, eta lurraldearen hedadurak justifikatutako indize zuzentzailea.

Nola finantzatuko dira larrialdiei edo legezko betebehar berriei erantzuteko inbertsioak?

Honela finantzatuko dira:

- Aurrezteak
- Beste erakunde batzuen diru-laguntzak
- Udalaren ekarpenak



Hasierako inbertsioak

Donostiako Udalak, bere finantza-aukeren arabera, eta 2024-2027 epean, honako hauei dagozkien inbertsioak egingo ditu:

- Eskola Zaharra egokitzeko obrak (2024 eta 2026 artean)
- Igeldoko plazako komunak egokitzea
- Frontoia hobetzeko inbertsioak



Ondarea

- Igeldoko Toki Erakunde Txikiaren ondarea, Donostiako Udalaren osoko bilkurak erabakitakoa izango da, Igeldoko Toki Erakunde Txikiak gerora eskuratu duen ondareaz gain.
- Igeldoko Toki Erakunde Txikiari dagokio ondasunak bermatzea.

Igeldoko auzo-mugartean dauden erabilera publikoko ondasun guztiak TETri atxikiko zaizkio, honako bi hauek izan ezik:

- Igeldon dagoen ur-biltegia, edateko ur-banaketa sarearen parte denez, Donostiako Udalaren eskumenekoa izaten jarraituko du.
- Igeldo eta Antigua auzoa lotzen dituen errepide nagusia. B multzoko eskumenei eta azterlanei lotuta dagoenez, errepide horri dagokion lana egiten den unean eta dagokion eskumena eskualdatuta transferituko da errepide hori.

* Udal inbentarioan jasotako ondarearen xehetasun guztiak jasotzen dituzten fitxak onartutako dokumentuaren eranskinetan agertzen dira (higiezinak, zortasunak, emakidak, eta abar.).

TETaren egoitza eta pertsonala

Igeldon izango du egoitza instituzionala, eta honako langile propio hauek izango ditu:

- Mantentze/Hirigintza arloko teknikaria
- Garapeneko eta zaintza soziokomunitarioetako teknikaria
- Administrazio Orokorreko teknikaria
- Administraria

ZEINTZUK DIRA HURRENGO URRATSAK?

2023ko azaroaren

28ra arte:

Jendaurreko
erakusketa publikoa

2024ko martxoa:

herri-galdeketa
Igeldon

2023

2024...

2024ko otsaila:

TETren eraketa
onartzea Udalaren
Osoko Bilkuran

2024ko apiriletik

aurrera: espedientea
Gipuzkoako Foru
Aldundiari bidaltzea,
TETren eraketari buruz
ebatz dezan.



Eta zalantzarik badut?

Udaleko teknikariz eta Herri Kontseiluko kideez osatutako talde bat Igeldon egongo gara zure zalantzak argitzeko. Hauek dira aurreikusitako hitzorduak:

 2023ko azaroak 15 eta 16

 Igeldoko eskoletan

 19:00

 *Hitzordu hauetakoren batera joan nahi baduzu deitu **943 481 356** telefonora edo eman izena **udala_partaidetza@donostia.eus***



Liburuxka honek hiriko Gobernuak 2023ko urriaren 10ean onartutako Toki Erakunde Txikiaren dokumentua laburbiltzen du.

Azaroaren 28ra arte egongo da jendaurrean.

Dokumentu osoa www.donostia.eus webgunean kontsulta dezakezu eta adierazitako epera arte nahi dituzun alegazioak erregistratzeko aukera duzu.